

Ebazpena: R045/2025

Espedientea: E007/2023

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 19a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek; bada, hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatu duen gatazkari buruzkoa, zeinaren xedea baita desadostasun bat ebaztea: nork daukan eskumena ordainarazteko OCASO SA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS (aurrerantzean, OCASO; IFZ: XXXXXXXXXX1) entitateak 2016ko eta 2017ko ekitaldietan aseguru-primen gaineko zergan ordaindutako kuotak. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 7/2023 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

- 1.- OCASO entitateak Madrilen dauka egoitza fiskala.
- 2.- 2020ko otsailaren 11n, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak OCASOrri jakinarazi zion egiaztapenak eta ikerketak ikuskatzeko jarduketak hasi zituela, egiaztatzeko ea tributu-betebeharrak bete zituen 2016ko otsailetik 2017ko abendura bitarteko zergaldietan; besteak beste, aseguru-primen gaineko zergan.

3.- Jarduketa horietan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egiaztatu egin zuen OCASOk kudeaketa-bulegoaren kokapena aplikatu zuela lotune gisa aseguru-primen gaineko zergarako, suteen eta elementu naturalen aseguru-eragiketei dagokienez. Alabaina, Ekonomia Itunaren arabera, arriskuaren kokapena da lotunea, eta, higiezinaren aseguruaren kasuan, higiezin horien kokapenak zehazten du.

Horrela, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zehaztu zuen bidegabeko diru-sarrerak egin zituela GFAn: 2016ko ekitaldian, 9.401,08 euro izan ziren, eta, 2017koan, 10.674,65 euro.

4.- 2022ko martxoaren 18ko mezu elektroniko baten bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bidalketa-eskaera igorri zion GFari, OCASOk GFari aseguru-primen gaineko zergan bidegabe sartutako kuotengatik.

5.- 2022ko urriaren 26an, GFAk mezu elektroniko bat bidali zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, 2022ko urriaren 21eko erabaki bat erantsita; erabaki horretan, ezetsi egiten zen Zerga Administrazioko Estatu Agentziak igorritako bidalketa-eskaera.

GFAk eskaera hori ezesteko oinarria izan zen ezen, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aldeko itzulketa-eskaera jaso zuenerako, lau urte baino gehiago igaro zirela itzulketa eskatzeko eskubidea sortu zenetik, eta, gainera, tarte horretan ez zuela beste jarduketarik egin, GFAk ezagutu zuenik; ondorioz, preskribatuta zegoen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren alde gerta zitekeen kreditu-errekonozimendua.

6.- 2022ko abenduaren 23an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak inhibizio-errekerimendua jakinarazi zion GFari, zertarako-eta aitor zezan agentzia horrek eskumena zeukala aldundi horri exijitzeko aseguru-primen gaineko zerga gisa GFAn bidegabe sartutako kuotak. Horretarako, alegatu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eskubidea preskribatzeko epea eten egin zela 2020ko otsailaren 11n hasitako ikuskapen-jarduketekin, eta, beraz, agentzia horren kreditua ez zegoela preskribatuta itzultzeko eskatu zuenean.

7.- 2023ko urtarrilaren 18an, GFAk Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zion uko egiten ziola inhibizio-errekerimenduari, itzultzeko eskaera ezesteko erabilitako arrazoiketa bera erabiliz. GFAk errepikatu egin zuen ez zuela Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren erreklamazioaren berri izan 2022ko martxoaren 18ra arte. Horrenbestez, lau urteko epea igaro zen aipatutako tributu-betebeharpekoak 2016ko eta 2017ko hileko likidazioetan GFari egindako diru-sarreretatik (azkenengo likidazioaren azkenengo diru-sarrera 2018ko urtarrilaren 25ean egin zen) harik eta igorpena itzultzeko eskatu zen arte.

8.- 2023ko otsailaren 20an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, eta gatazka hori prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela-eta, bete egin da GFAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkeztu eta proposatzeko izapidea, eta, horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

9.- 2025eko urriaren 8an, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eskaera bat aurkeztu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean, prozeduran atzera egiteko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) onetsi duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu horrek eginkizun hauek ezartzen dizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta Foru Aldundien artean edo Foru Aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.»

2.- Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 7/2023 gatazkan atzera egitea.

Azken alegazioen izapidean, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eskaera bat aurkeztu zuen 2025eko urriaren 8an, atzera egindakotzat jotzeko izapidetzen ari den 7/2023 gatazkari dagokion prozeduran, OCASO entitateak 2016ko eta 2017ko ekitaldietan aseguru-primen gaineko zerga gisa sartutako kuotak ordainarazteko eskumenari dagokionez.

Administrazioen artean kredituak eskatzeko eskubidearen preskripzioari dagokionez, Arbitraje Batzordearen askotariko ebazpenek eta Auzitegi Gorenaren askotariko epaiek identifikatzen dute zein egunetan hasten den erreklamatzeko epea, 4 urteko preskripzio-epea zenbatzeko ondorioei dagokienez: tributu-betebeharpeko administrazio ez-eskudun batean sarrera bidegabea egiten duen unea. Bestetik, tributu-betebeharpekoak egindako jarduketek edo tributu-administrazio batek tributu-betebeharpekoaren aurrean abiarazitako jarduketek ez dute eteten aurrekontua preskribatzeko epea, zeren ulertzen da zergaduna hirugarren bat dela, ukitutako administrazio publikoen arteko harremanetik kanpkoa.

OCASOk gatazkako kuota horiek ordaindu zituen arauz adierazitako epean, hurrengo hileko lehenengo 25 egunen barruan; hau da, 2018ko urtarrilaren 25a izan zen 2017ko abenduko kuotak sartzeko azken eguna.

Ikusita zein diren aurrekariak eta, bereziki, Auzitegi Gorenaren urriaren 11ko 1240/2023 epaia, zeinak berronetsi baitzuen Arbitraje Batzordeak 44/2015 gatazkan emandako 39/2022 Ebazpeneko irizpidea, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak ulertu du lau urteko epea igaro dela eskatutako zenbatekoak

sartu zirenetik, eta, hortaz, haiei dagokienez, preskribatu egin zaiola kreditu-eskubidea.

Atzera egitea, prozedura amaitzeko modu gisa, jasota dago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 84. artikuluan, eta aplikatzekoa da, kontuan harturik, betiere, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikulua egindako igorpena (errege-dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean jasotzen den Arbitraje Batzordearen Araudia onartzen du).

Illo horretan, bat etorrita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 94. artikuluan xedatutakoarekin, Arbitraje Batzorde honek onartu egin behar du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eskatutako atzera egitea, prozeduran ez baitago edo ez baita agertu hirugarren interesdunik, gatazkan sortutako auzia ez baita interes orokorrekoa, eta, definitzeko eta argitzeko, ez baita komeni bideratzea.

Ondorioz, ebazpen hau ematen da, aintzat hartuta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 21.1 artikuluko pronuntziamenduak.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

1.- Onartzea Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 7/2023 gatazkan aurkeztutako atzera egitea.

2.- 7/2023 gatazka artxibatutzat deklaratzeko, prozeduraren xedea galdu delako.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta OCASO SA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS entitateari.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.